



Beste iturrietatik

Ikasten ikasi: hiztegia lantzeko 15 ariketa*

William R. Holden

Oroimenak hizkuntz ikaskuntzan duen egitekoa merezi hainbat aztertu ez den alor horietako bat da aurki. Honako honetan, Japoniako Hokuriku Unibertsitatean irakasle den William R. Holden-ek ikasleari hitz berriak gogoratzekoan lagun diezaiokeen zenbait baliabide eskainiko digu, beti ikaslearen irakurtzeko ohiturei hobeto egokituko zaiena aukeratuta.

Hizkuntz gaietan oroimenak duen zereginari buruz azken hamarkadetan ikerlan ugari egin diren arren, apenas atera den, orain arte, behintzat, hizkuntzen irakaskuntzan axiomatikotzat har daitekeen ondorioirik. Hori, neurri batean gerta daiteke, ikaskuntza-, ekoizpen- eta komunikazio-eta-pak bereiztea zaila delako: komunikazio bidezko hizkuntz irakaskuntzari buruzko ikerkuntza aplikatuak, esaterako, askotan erabili izan ditu ekoizpena eta komunikazioa ikaskuntzaren erakusgarritzat, emaitza enpirikorik izan ez arren. Ikerkuntza horren helburua ikas-estrategien eraginkortasuna balioztatzea zen, baina, horren orde, erakutsi zuen beharrezkoa dela ikasleak oroimena indartzea informazio berria bereganatuko badu. Carter eta McCarthy-k diotenaren arabera (1988: 12), ‘sortzen ari den hiztegia *ikasteko* (enfasi eta guzti) printzipio horrek zera dio: zenbat eta hitz gehiago irudi edo asoziazio bidez aztertu edo landu, orduan eta errazagoa izango da haiek geureganatzea.’

Hori baino lehen Stevick-ek (1976an) eta Johnson-Laird-ek (1983an) eta duela gutxi Brown eta Perry-k (1991n) egindako ikerketetan egiaztatu

den bezala, estrategia integratzaileek hitzak gogoratzeko eragin positiboa izaten dute, hitzok asoziaziozko sareetan gordetzen direlako. Anderson-ek ere (1983) esan zuenez, edukien oroimena handitu egin daiteke ikastekoan nahiz gogoratzekoan presente dauden ideien (edo asoziazioen) kopurua handiagotuz, batez ere asoziazio horiek lehengo ezagutzekin ondo integratuta badaude. Bialystok-ek (1981ean) eta O'Malley eta laguntzaileek (1985ean) ikusi zuten, goi-mailako zein behe-mailako ikasleek ikas-estrategiak erabiltzen dituztenean, maiztasun desberdinez erabili arren, hiztegia hobeto gogoratu dezakete gero. Gugandik hurbilago, Mangubhai-k (1991n) 'goi-mailako ikasleek behe-mailakoek' baino oroimen-estrategia gehiago eta eraginkorragoak dituztela frogatu zuen.

Atera daitekeen ondoriorik praktikoena zera izan daiteke: hitzak gogoratu ditugula ziurtatzeko modurik onena hitz berriak baliabide desberdin ugariaren bidez behin eta berriro erabiltzea da. Hitzak gogoratzeko oroimenari irudi, hitz, ukimen, testu, kinestesia edo soinu bidez laguntzea trebezia hobetzeko baliabide bezala aurkez dakieke ikasleei, eta hala egin beharko genuke. Ikasle bakoitzak ikasteko bere modua duenez, ikasleek nork bere erara erantzungo dute, zalantzarik gabe, estrategia desberdinen aurrean; hala ere, garrantzitsua da ikasleei estrategia bat baino gehiago eskaintzea, aukera beraiek egin dezaten. Hitzegiaren luze-zabalera eta oroimena handitzeaz gain, teknika horiekin ikasleak bere ikasteko estiloz kontzienteago izateko aukera izango du, eta hori urrats garrantzitsua da ikaslea autonomoagoa izan dadin eta seguruago senti dadin.

Ondoren, neure ikasleekin erabili izan ditudan hainbat oroimen eta mnemoteknia estrategia azalduko ditut. Hemen aipatuko ditudan teknikak ez dira ez berriak, ez bereziki berritzaileak; hala ere, ikasleari bere hiztegiaren luze-zabalera handitzeko aukera eta bere ikasteko estiloaz kontzientzia handiagoa izateko aukera eskainiko dizkio.

Asoziazio/elaborazio metodoa

Metodo hau erabiltzeko, saiatu ingelesezko hitz berria lehendik dakizunarekin erlazionatzen, hitza gogoraten lagunduko dizun modu batean. Adibidez, eguraldia deskribatzeko erabiltzen diren hitzak ikasteko, eguraldi-mota horretan izan duzun esperientziaren bat gogoraten saiatu, horrelako eguraldia maiz izango den munduko lekuren bat imajinatu, leku horretan lurraldea nolakoa den pentsatu, eguraldi horrekin zerua nola jartzen den, eguraldi-mota hori urteko zein sasotan izaten den... Hobeto funtzionatzen du asoziazioak norberaren esperientziarekin lotura zuzena baldin badu.

Adibidez:

elkor - basamortuak: Ipar Afrika, Txina, Australia, EB
hotz - poloetako eskualdeak: Arktikoa, Antarktikoa
sapa - inguru tropikalak: Afrika, Asia, Hego Amerika

Hatzen metodoa

Metodo hau erabiltzeko, hitz berriak eskuetako hatzekin erlazionatu behar dituzu, errazago gogoratzeko. Teknika hori bereziki probetxuga-

ria da zerrenda, zenbaki, asteko egun, urteko hilabete, eta horrelakoetarako. Informazio berri hori gogoratzen lagunduko dizu, baina denbora laburrerako baino ez du balio izaten.

Adibidez: hatz erakuslea = mila; erakuslea eta hatz handia = 2 milioi; erakuslea, handia eta hatz nagia = 3 bilioi; erakuslea, handia, nagia eta hatz txikia = 4 trilioi.

Taldekatze- -metodoa

Metodo hau erabiltzeko, ikasi beharreko hitz berriak erraz gogoratzeko moduko unitate edo taldetan bereizi; adibidez, funtzio gramatikaletan (izena, aditza, adjektiboa...), gaitan (eguraldia, eskola, pertsonalitatea...), hizkuntz funtziotan (barkamena eskatzeko, eskabidea egiteko, baimena eskatzeko...), aurkakotan, nahiz hizki berberetz hasten diren hitzen multzotan (“A” hitzak, “B” hitzak...).

Adibidez:

pertsonalitatea - atsegina, kanporakoia, lotsatia, isila
aurkakoak - hotz/bero, luze/laburra, gertu/urruti, ireki/itxi
aditzak - azkartu, askatu, aurreikus

Irudien metodoa

Metodo hau erabiltzeko, gogoan hartu nahi duzun hitz edo esaldiarekin lotura oso zuzena duen irudi edo egoera bat imajinatu. Irudiak ez du hitzaren “esanahi” bera izango, baina hitza gogoraraziko dizu. Amerikar askorentzat, adibidez, *askatasuna* hitza Askatasunaren Estatuarekin erlaxionatuta egon daiteke, baina beste batzuentzat hitz horren irudia haur txiki bat besoetan duela, gauez eta soldaduak jarraika dituela, muga hesitua zeharkatu nahi duen norbait izan daiteke. Bakoitzak hitz batez bere irudia izango du, esperientziak desberdinak direlako. Hitzei buruzko zeure esperientziak beste batzuekin konpartitzeak eta besteei azaltzeak errazago gogoratzen lagun diezazuke. Irudi biziak errazago gogoratzen dira koloreak baino.

Adibidez:

distiratsu = Ferrari gorri berri bat
justizia = gaizkile handi baten atxiloketa
maitasuna = ama, haurra besoetan duela

Gakoen metodoa

Metodo hau erabiltzeko, hitz edo esaldi berriaren eta zeure hizkuntzan antzeko ahoskera duen hitz baten artean entzunezko edo ikusizko loturak sortu. Adibidez, japonierazko *kasa* hitza (aterkia) ikasi berri duen gaztelaniadun batek, soinu hori bera gaztelaniak ere baduela ikusita, tankera honetako esaldi bat (japonierazkoa) osa dezake: “Egun euritsuetan casatik ateratzen naizenean *kasa* hartzen dut beti”. Gero, aterkiaren karaktere txinatarra (傘) ikusita ikasleak 4 lagun imajina ditzake etxeko aterpean (lehorrean) eserita. Ingeleseko *pan* hitza gogoratu nahi duen japonierazko ikasle batek, adibidez, japonierazko パン (ogia) hitza (jatorriz Portu-

gesetik eratorria) erabil dezake, eta ondoren, plantxa (pan) batean erretako ogi fresko eta usaintsuaren zati bat imajina dezake. Metodo horrek hobeto funtzionatzen du, dirudienez, hitz soilekin esaldiekin baino.

Lekuen metodoa

Metodo hau erabiltzeko, oso ondo ezagutzen duzun leku bat edo askotan pasatzen zaren bide bat imajinatu. Leku horren zatiak edo eremuak (etxe bateko gelak, kaxoi bateko gauzak edo kalean zeharreko denda eta etxeak) ikasi nahi duzun esaldi edo hitz berriekin erlazionatu. Adibidez, eskolarako bidean denda askoko kale batetik egunero pasatzen bazara, hitz bakoitza denda batekin erlaziona dezakezu, eta gero, dauden hurrenkeran dendak gogoratu ahala, bakoitzari esleitu diozun hitza gogoratu. Hurrengo egunean, hitzak berriro esan dendetatik pasatu ahala. Ikasi nahi dituzun hitzak dendarekin edo lekuarekin duten soinuagatik (hizkuntza bietan hitzak soinu berberaz hasten direlako, *boulangerie* - bread) edo duten loturagatik (*jatetxe* - *zerbitzari*) erlazionatzeak hobeto gogoratu lagunduko dizu.

Narraziozko katearen metodoa

Metodo hau erabiltzeko, hitz berriak gogoratzen lagunduko dizun istorio bat asmatu testuinguru edo egoera bat imajinatuz. Hobe izaten da hitz bakoitzaren ekintza edo irudia ikusi (buruan irudikatu) ahal izatea. Hasteko, gai batekin lotzen dituzun hitz guztiak taldetan elkartu (goiko taldekatze-metodoa begiratu) eta, ikasi nahi dituzun hitzok dituzten talde horiek elkarrekin lotuz, istorio labur bat asmatu. Istorioa idazten baduzu, zenbat hitz gogoratzeko gauza zaren neurtu ahal izango duzu. Istorioa aldatzen bada, ez larritu!

Adibidez: *alfonbra*, *garesti*, *zurbil*, *ikaragarri*, *zikindu*, *txukatu* eta *lasaitasun* hitzak gogoratu nahi badituzu, hurrengo Plantillaren metodoa erabili Pertsiaiko alfonbra (1) garesti (2) bat irudikatzeko. Gero, norbaitek alfonbra gainera muztioa bota duela imajinatu eta zikinduta (3) geratu dela. Alfonbraren jabea, orduan, ikaragarri (4) haserretu da zurbil (5) geratu arte. Muztioa bota duen laguna korrika joan da txukatze (6) zerbaiten bila. Jabearen lasaitasunerako (7), alfonbra ez da hondatu.

Plantillaren metodoa

Eguraldi-motak deskribatzeko hitzak ikasi nahi badituzu, adibidez, asteko egunetan pentsa dezakezu (plantilla) (astelehena, asteartea, asteazkena...) eta bakoitzari eguraldi mota bat esleitu (astelehenari, eguzkitsua; astearteari, euritsua; asteazkenari, lainotua; ostegunari, hodeitsua...) eta egun bakoitzean zeruak izango duen itxura zeure buruan irudikatu. Beste plantilla batzuk izan daitezke, besteak beste, urteko hilabeteak, lagun izek, ikaskide eta senideenak, zure telefono-zenbakia, autoaren zatiak, etxeko gelak edo beste edozer gauza. Kontuan izan plantilla automatikoki gogora dezakezun zerbait izan behar dela. Horren ondoren, ikasten ari zaren hitzak bakarrik erabiltzen hasiko zara. Plantilla gisa zenbakiak erabiliz, eta Narraziozko Katearen metodoaren bidez, hitzen arteko harremana irudikatuko duen istorio bat sortu, eta hitz bakoitzari zenbaki bat eman.

Erantzun fisikoaren metodoa

Erantzun fisikoaren metodoak gorputza edo gorputzeko atalak hitzaren esanahia irudikatuko duen moduren batez mugitzea eskatzen du. Adibidez, *oin-puntetan* esamoldea ikasten ari bazara, agertokian dantzan ari den dantzari klasiko batengan pentsa dezakezu, edo Tchaikovsky-ren *Beltxargen lakuan*, edo gauez zure etxean sartu den lapur batengan, edo horren orde, Erantzun Fisikoaren metodoa erabiliz, zeu ere hanka-puntetan jarri eta gelan zehar dantzan, edo lapurra baitzinan has zaitezke. Erantzun Fisikoaren metodo honek zure gorputza eta zure adimena, biak, behar ditu hitzak gogoratzen laguntzeko. Aurpegiko keinuak izan daitezke hitz berriak gogoratzen lagun zaitzakeen erantzun fisikoaren beste aldaera bat.

Marrazkien metodoa

Metodo hau irudien metodoaren berdina da. Metodo hau erabiltzeko, ikasten ari zaren hitz, zuretzat esaldi edo hitz-multzoarekin erlazio handia duen irudi edo egoeraren bat imajinatu. Gogoan izan irudiak ez duela hitzaren “esanahi” bera, baina hitza gogoraraziko dizula. Horren ondoren, hitz edo esaldi horretarako aukeratu duzun irudiaren marrazki bat egin. Lehengo adibide bera erabilita, amerikar batek Askatasunaren Estatuaren irudia erabil dezake frantseseko *la liberté* hitza gogoratzeko.

Hitz katearen metodoa

Japonierazko “shiritori” jokoaren aldaera bat da. Hitzak ahoskatzen diren moduaren arabera elkarrekin kateatzea da kontua, hitz baten azken letra hurrengo hitzaren lehenengo letraren berdina dela. Adibidez, *dardara, aterpe, erruki, istilu, u...* eta horrela, hitz bakoitzaren lehenengo letra aurrekoaren azken letraren berdina izanik. Ezagutzen duzun edozein hitz erabil dezakezu, baina betiere ikasten ari zaren hitz berri guztiak erabiltzen saiatu.

Mapa semantikoaren metodoa

Metodo hau erabiltzeko, hitz-multzo batekin irudi bat osatzen saiatu; hitz berria edo nagusia irudiaren erdian edo goialdean jarri; eta ondoren, erdiko hitz horrekin (**beltzez**) erlazionatzen diren hitzak pentsatu.

Adibidez:

kontu kontari jardun, ikasi, bazkaldu, kirola egin
lagunak

azterketa, etxeko lanak, irakasle gogorak –eskola– ikasgela,
mahaia, aulkia, arbela

jarduerak
kirola, kluba, irtenaldiak, proiektuak

Ikusizko metodoa

Ikusizko metodoa irudien eta marrazkien metodoaren oso antzekoa da. Metodo hau erabiltzeko, gogoratu nahi duzun hitz, esaldi edo hitz-multzoarekin zeuretzat oso lotuta dagoen irudiren bat duen leku, egoera, argazki edo horrelakoren bat imajinatu. Hitz edo esaldi horrentzat duzun irudiaren marrazkia egin hiztegiarentzako koadernoan, eta marrazkiko zatien izenak idatzi.

Espazioan taldekatzearen metodoa

.1

Saiatu hitzak paperean modu desberdinetan idazten, gogoratzea errazagoa izan dadin. Ez idatzi hitzok zutabe soiletan, elkarrengandik bereizten ez direla. Hitzok erabiliz irudiak “marraztu”. Adibidez:

Gorputza		Norabideak	
	burua		iparra
besagaina	besagaina	ipar-mendebaldea	ipar-ekialdea
	bularra	mendebaldea	ekialdea
	saihetsak	hego-mendebaldea	hego-ekialdea
	gerria		hegoa
	mokorra		
izterra	izterra		
belauna	belauna		
berna	berna		
orkatila	orkatila		
behatzak	behatzak		

Soinuen bidezko metodoa

Metodo hau erabiltzeko, hitz berriaren soinua (*gotzain*) antzeko soinu batez hasten den hitz ezagun batekin lotu (*gorri*). Ondoren pentsatu *gotzain/gorri: Gotzainak kapela gorria du.*

Edo adibidez, *oihan/oilo: Oiloa oihanean dabil;*

edo beita/bero: Arrainak harrapatzeko ez erabili beita beroa, uretan sartutakoan hoztu egingo zaizu eta.

Aho-korapilo moduan ere egin daiteke.

Itzultzailea: Ane Goenaga

Oharrak

* Ingeleseztik “Learning to learn: 15 vocabulary acquisition activities” *Modern English Teacher* (8/1: 42-47, 1999) aldizkarian argitaratua. Beraien baimenez itzulita eta berrargitaratua.

Bibliografia

- Anderson, J.** 1983. *The architecture of Cognition*. Harvard University Press.
- Bialystok, E.** 1981. The role of conscious strategies in second language proficiency. *Modern Language Journal* 65: 24-35.
- Brown, T. & Perry, E.** 1991. A comparison of three learning strategies for ESL vocabulary acquisition. *TESOL Quarterly* 25: 655-670.
- Carter, R. & McCarthy, M.** 1988. *Vocabulary and Language Teaching*. Longman.
- Jonhson-Laird, P.** 1983. *Mental Models*. CUP.
- Mangubhai, F.** 1991. The processing behaviors of adult second language learner and their relationship to second language proficiency. *Applied Linguistics* 12: 268-298.
- O'malley, J. et alii.** 1985. Learning strategy applications with students of English as a second language. *TESOL Quarterly* 19: 285-296.
- Stevick, E.** 1976. *Memory, Meaning and Method*. Newbury House.